



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2018ko ABENDUAREN 4an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2018ko abenduaren 4an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Onintza Gorostidi Murua
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Xabier Mugika Letamendia

Bere ezin etorria azaltzen dute: Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. Aurreko bilkuretako akten onespena.
 - a. 2018ko urriaren 23an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. Fakturak eta ordainketak.
4. M.S.A. jaunak eginiko lanen legeztapen eskaera, hala bada.
5. Alkizako Ikilisagasti baserriaren erabaeritzeari buruz, ur agentziak eta Gipuzkoako foru aldundiko ekonomia sustapeneko, landa ingurune eta lurralde orekako departamentuak igorritako txostenaren berri ematea, hala bada.
6. Oilategitik kultur elkarteak eginiko 2018 urteko diru-laguntza eskaera, hala bada.
7. Alkizako Saletxe baserriko azpikaldean itxita dagoen espazioan, baserriko makinaria gordetzeko lekua ahalbideretzeko obra baimena eskaera izapidetzeko, Gipuzkoako Foru Aldundundiari dagokion txostena igor dezan eskaera egitea, hala bada.
8. 3/2018 Kreditu aldaketaren hasierako onespena, hala bada.
9. Beste batzuk.
10. Erregu, galdera eta mozioak.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

.../...

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2018ko urriaren 23ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

50/2018 Alkatetza Ebazpena, urriaren 25ekoa, Alkizako Garaikoetxea txakolindegiko lehen erabilerarako baimena ematea, ebazten duena.

51/2018 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 20koa, Maderas Salaberriari, herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

52/2018 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 22koa, J.F.I.E. jaunak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

CORREOS	194,46
XORSA	309,16
MOVISTAR FIJO	168,19
ACSOL ENERGIA	177,39
OTERO PILOTAGILEA	128,26
EUSKAL-HOTZ	312,18
ARRATE IRRATIA	121,00
MOVISTAR FIJO	74,40
ACSOL ENERGIA	84,55



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

PAULO AZKUE	65,35
M.URANGA	125,96
M.URANGA	336,14
M.URANGA	181,75
ARGITU	161,23
EBA ERKIZIA	2.286,64
PAULO AZKUE	111,77
MOVISTAR	169,63
TOLOMENDI	155,55
ACSOL	540,02
REPSOL	66,01
ANTONIO ELOSEGUI	48,50
SEIKIN	499,73
TXIMELETA	627,00
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	395,55
TOLOSALDEA GARATZEN	99,55
ACSOL	40,39
ACSOL	58,47
ACSOL	49,92
ACSOL	133,43
IBERDROLA	51,70
ACSOL	173,13
ACSOL	84,92
ACSOL	92,77
ACSOL	91,36
ACSOL	120,12
IZADI	193,60
CORREOS	23,03
OLABERRIKO UDALA	168,96
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	123,71
ANTONIO ELOSEGUI	33,64
KEY-LAN	16,00
EUSKAL-HOTZ	112,53
EGIMENDI NEKAZAL TRESNAK	46,04
ACSOL	293,04
IMANOL ITUÑO	477,00
EDURNE BENGOA	186,42
EUSKALTEL	96,97



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BABESA SUZAI	183,17
RED OFISAT	118,57
RED OFISAT	118,57
LAU HAIZETARA	1.554,85
LAU HAIZETARA	5.783,80
LAU HAIZETARA	768,35
ZUENTZAT ARTE ESKOLA	281,25
HOSTELERIA URANTZU	2.069,71
ALKIZAKO HERRI OSTATUA	19,95
KUKU-LORE LIBURUDENDA	43,52
KUKU-LORE LIBURUDENDA	87,93
IRATZE LORAZAINTZA	5.364,83
NORTEGAS	97,72
MODES ITURGINTZA	140,36
EDURNE BENGOA	186,42

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **27.413,32** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

M.S.A. JAUNAK EGINIKO LANEN LEGEZTAPEN ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik M.S.A. jaunak eginiko eskaera, non 0319 lursailean dagoen bordari zenbait instalazio pasatzeko egin zuen zanga legeztatzeako obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2018ko abenduaren 3an Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO 0319 LURSAILEAN DAGOEN BORDARAINO ZENBAIT INSTALAZIO PASATZEKO EGIN ZEN ZANGA LEGEZTATZEKO TXOSTENA

M.S.A. jaunak, Alkizako 0319 lursailean dagoen bordari ur eta argindarraren zerbitzua emateko egin zen zanga legeztatzea eskatzen du, lanak deskribatzen dituen eskaera aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako idatziaren arabera, Gareai eta Gorostiurrea etxe tartean dagoen bidean egin den zanga legeztatuta nahi da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Zanga, Alkizako 0319 lursailean dagoen bordari zerbitzua ematen zion ur hornikuntzako instalazioa berritzeko eta argindarra emateko zabaldu zen 2014 urtean.

Lubakiak 100mko luzera eta 50zmko zabalera du eta bertatik argindarraren hodia eta pulgada erdiko plastikozko tutu bat pasatzen da. Lan hauen aurrekontua, 2.000 €-koa izan da (BEZ-a gabe).

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikin eta instalazioen zabalkuntza obrek eta lur mugimenduek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.

Zanga Alkizako lur hiritargarran kokaturik dago, lursail pribatua (nahiz eta katastroan honela ez azaldu) eta ur kontadorea bordan kokaturik dago.

Alkizako araudiaren 32º artikulua araberan, *hiri lurzoruan zehar igarotzen den edozein azpiegitura, instalazio, hornidura eta abar, lurpean ezarrita egongo da.*

Ur hornikuntzari dagokion 34º artikulua dionez, *sareek, bideen eta jabari publikoko espazio libreen trazadura jarraituko dute eta maniobra eta kontrol elementu guziki kutxetetan kokatuko dira, bertara erraz heldu ahal izateko eta aise desmuntatzeko modukoak izan daitezten.*

Hau honela izanik, kontadorea eta berari dagozkion giltzak jabari publikoan kokatuko den kutxeta batera aldatu beharko dira, sare nagusiko hargunean.

Baldintza hauek betetzen badira eta zerbitzu baterako izanik, lanak legeztatzea egokia dela iruditzen zait."

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- M.S.A. jaunak eginiko lanaren legeztapen baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako 0319 lursailean dagoen bordaraino zenbait instalazio pasatzeko egin zen zanga legeztatze baimena ematea. Betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jartzen duenari baldintzaturik.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

ALKIZAKO IKILISAGASTI BASERRIAREN ERABERRITZEARI BURUZ, UR AGENTZIAK ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO EKONOMIA SUSTATPENENKO, LANDA INGURUNEKO ETA LURRALDE ORREKAKO



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

DEPARTAMENTUAK IGORRITAKO TXOSTENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik A.R.M. jaunak eginiko hirigintza kontsulta, Ikilisagasti baserriaren eraberritzeari buruz.

Ikusirik, Alkizako Udalak, Ur agentzira eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapeneko, landa inguruneko eta lurralde orekako departamentura igorri zuela A.R.M. jaunak eginiko kontsulta, azken hauek euren txostenak egin zezaten.

Ikusirik, Ur Agentziak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapeneko, landa inguruneko eta lurralde orekako departamentuak igorri dutela eskatutako txostenak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: A.R.M. jaunari, Ur agentziak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapeneko, landa inguruneko eta lurralde orekako departamentuak eginiko txostenaren berri ematea, Ikilisagasti baserriaren eraberritzeari buruzko hirigintza kontsultari erantzunez.

SEIGARREN PUNTUA

OILATEGITIK KULTUR ELKARTEAK EGINIKO 2018 URTEKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Oilategitik Kultur Elkarteak eginiko eskaeran dioena, hau da, Oilategitik 17. Alea ordaintzeko, Alkizako Udalari 1.500 eurotako diru-laguntza eskatzen die, euren jarduerarekin jarraitu ahal izateko.

Gaia azterturik, Jose M^a Aranzabe zinegotziaren abstentzioarekin, Udalbatzak gehiengoaz, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oilategitik Kultur Elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da, Alkizako Udalak 1.500,00 eurotako diru-laguntza ematea onesten du.

BIGARRENA: 1.500,00 eurotako gastua onestea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Oilategitik Kultur Elkarteari jakitera ematea, Udalak emandako diru-laguntza zuritu egin beharko duela, dagozkion gastuen berri Udal honi emanaz.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Oilategitik Kultur Elkarteari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO SALETXE BASERRIKO AZPIKALDEAN ITXITA DAGOEN ESPAZIOAN, BASERRIKO MAKINARIA GORDETZEKO LEKUA AHALBIDERATZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA IZAPIDETZEKO, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIARI DAGOKION TXOSTENA IGOR DEZAN ESKAERA EGITEA, HALA BADA

Ikusirik M.D.A. andreak eginiko eskaera, non Saletxe baserriko azpikaldean itxita dagoen espazioan, baserriko makinaria gordetzeko lekua ahalbideratzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Alkizako Udalak, Saletxe baserriko azpikaldean itxita dagoen espazioan, baserriko makinaria gordetzeko lekua ahalbideratzeko obra baimena eman aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapena, landa ingurunea eta lurralde oreka departamentuaren on iritzia izan behar duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Alkizako Saletxe baserriko azpikaldean itxita dagoen espazioan, baserriko makinaria gordetzeko lekua ahalbideratzeko obra baimena eman aurretik M.D.A. andreak Udaletxe honetan aurkeztutako dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia sustapena, landa ingurunea eta lurralde oreka departamentura igorri, azken honek dagozkion txostena egin dezan.

ZORTZIGARREN PUNTUA

3/2018 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Udala honen 2018 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren bototara jarri eta bertaratuek, aho batez honako hau

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematea, Udala honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.130.332.10.02 2018	kultur dinamizatzailearen indemnitzazioa	15.000,00	4.500,00	19.500,00
1 0000.481.335.00.01 2018	GALTZAUNDI DIRULAGUNTZA	0,00	550,00	550,00
1 0000.211.933.00.01 2018	herriko ostatua konponketak	2.500,00	2.000,00	4.500,00
1 0000.211.164.00.01 2018	hilerriko gastuak	2.280,00	10,00	2.290,00
1 0000.212.153.04.01 2018	makineria instalazio , tresnerien manten	8.000,00	500,00	8.500,00
1 0000.221.153.40.04 2018	ERREGAI ETA KARBURANTEAK	1.200,00	600,00	1.800,00
1 0000.221.330.00.01 2018	KULTUR ETXEKO ARGINDARRA	2.800,00	300,00	3.100,00
1 0000.626.172.00.01 2018	fagus web orria	0,00	2.166,00	2.166,00
1 0000.683.933.00.02 2018	HERRI OSTATUKO BERRIKUNTZAK	6.500,00	1.600,00	8.100,00
1 0000.481.340.00.06 2018	EMAKUMEEN AIZTONDO SARIA	0,00	483,00	483,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

1 0000.629.172.00.01 2018	BIODIBERTSITATEA 2016	99.000,00	716,00	99.716,00
1 0000.422.943.02.01 2018	TOLOSALDEA GARATZEN	5.400,00	500,00	5.900,00
1 0000.685.332.00.01 2018	LIBURUTEGIRAKO MAHAI ETA AULKIAK	0,00	739,00	739,00
1 0000.221.150.00.01 2018	UDALETXEA ARGINDARRA	3.000,00	400,00	3.400,00
1 0000.221.165.00.01 2018	KALEKO ARGINDARRA	2.500,00	200,00	2.700,00
1 0000.221.340.00.01 2018	FRONTOIKO ARGINDARRA	600,00	100,00	700,00
1 0000.210.153.04.01 2018	azpiegitura eta eta zerbitzuen mantentze	5.000,00	1.800,00	6.800,00
1 0000.211.320.00.01 2018	ESKOLAKO KONPONKETAK	500,00	200,00	700,00
1 0000.222.920.00.01 2018	udala telefono gastuak	2.200,00	1.000,00	3.200,00
1 0000.226.161.00.01 2018	URAREN KANONA	500,00	136,00	636,00
1 0000.226.172.00.06 2018	ingurumena babesa iharduera soziokultura	3.000,00	2.000,00	5.000,00
1 0000.227.150.00.07 2018	AHOLKULARITZA HIRIGINTZA	15.000,00	5.000,00	20.000,00
1 0000.227.920.00.07 2018	i.k.t teknikaria	1.800,00	220,00	2.020,00
1 0000.421.162.10.01 2018	TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA BILKETA	9.000,00	2.050,00	11.050,00
1 0000.421.162.20.01 2018	TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA KUDEAKETA	4.800,00	300,00	5.100,00
1 0000.480.172.00.01 2018	beka ingurumena	1.000,00	1.000,00	2.000,00
1 0000.622.150.00.01 2018	udala	9.500,00	4.280,00	13.780,00
1 0000.622.164.00.01 2018	kanposantuko obrak	4.170,00	1.700,00	5.870,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

1 0000.623.161.00.02 2018	ur bomba berria	0,00	624,00	624,00
1 0000.683.933.00.01 2018	OSTATUKO MAKINERIA	0,00	2.004,00	2.004,00
1 0000.626.332.00.01 2018	liburutegirako ordenagailu eta bestelako	0,00	1.547,00	1.547,00
1 0000.130.172.00.01 2018	INGURUGIROKO TEKNIKARIA	5.500,00	900,00	6.400,00
1 0000.220.920.00.01 2018	BULEGO MATERIALA	4.000,00	200,00	4.200,00
1 0000.221.320.00.03 2018	ESKOLA HAUR ESKOLA GASA	3.500,00	100,00	3.600,00
1 0000.222.332.10.01 2018	LIBURUTEGIKO TELEFONOA	900,00	100,00	1.000,00
1 0000.141.330.00.01 2018	kultura dinamizatzailea	30.500,00	269,00	30.769,00
GUZTIRA		249.650,00	40.794,00	290.444,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.000.00.01 2018	KREDITU GERAKINA 2017	40.794,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			40.794,00

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

HIRUGARRENA: 2018ko azaroaren 30ean egindako Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

iraunkortasunaren arloetan 2018. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Likidazioan egoera hori berretsiko balitz, toki entitate hau behartuta legoke plan ekonomiko finantzarioa onartzera. Aipatutako planak ahalbideratu behar du urteko ekitaldian eta hurrengoan defizitaren helburua eta gastu araua betetzea, eta 2020an zor bizia sarrera arrunten %70 edo txikiagoa izatea. Plan hori Udalbatzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita; bi hilabeteko epean onartu beharko da, gehiena jota, aurkezten denetik kontaktzen hasita; eta martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

9.1. BARNETEGIKO MANTENIMENDU GASTUEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2018ko otsailaren 27an egindako Udalbatzarrean, 2017ko irailaren 1etik 2018ko ekainaren 30arte, Barnetegian sortzen ziren mantentze gastuen kargu Alkizako Udala egingo zela onestu zen.

Ikusirik, oraindik eskola berria egiten ez direla hasi, eskolako haurrak barnetegia erabiltzen dutela lan horretarako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Eskola berria egin bitartean, Alkizako udalak barnetegian sortzen diren mantentze gastuen kargu egitea.

BIGARRENA: Alkizako Udala, barnetegian sortu diren mantentze gastuen kargu egitea, maiatzetik azarora bitartean, guztira 1.643,26euro izan direlarik.

HIRUGARRENA: Barnetegian sortutako mantentze gastuak, maiatzetik-azarora, hau da, 1.643,26 euro, 2018 ko udal aurrekontuetako 221.320.00.99 partidaren kontura ordaintzea.

9.2. XIV EMAKUMEEN AIZTONDO SARI NAGUSIA 2018 EKARPENA

Ikusirik 2018ko maiatzaren 27an egin zela XIV Emakumeen Aiztondo Sari Nagusia.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, Zizurkilgo Udalak aurkezturiko XIV Emakumeen Aiztondo Sari Nagusiaren kontu zuriketa, non Alkizako Udalari, 482,35 eurotako ekarpena egitea dagokion.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- XIV Emakumeen Aiztondo Sari Nagusiaren antolaketarako, Alkizako Udalak 482,35 eurotako ekarpena egitea.

BIGARRENGOA.- 482,35 eurotako gastua onestea.

9.3.TOLOSALDERAKO EUSKARALDIAREN ANTOLAKETAREN ETA KOMUNIKAZIO PLANAREN ORDAINKETA

Ikusirik Galtzaundi euskara taldeak aurkezturiko faktura, Tolosalderako euskaraldiaren antolaketa eta komunikazio plana egiteagatik. Bere zenbatekoa, 550,00 euro direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Galtzaundik aurkezturiko 550,00 eurotako faktura onestu, Tolosalderako euskaraldiaren antolaketaren eta komunikazio plana egiteagatik.

BIGARRENGOA.- 550,00 eurotako gastua onestea.

HAMARGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK

10.1. 2018KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENAREN ONESPENA

Ikusirik 2018ko euskararen nazioarteko egunerako adierazpena, non ondorengoa dioen:

**“ BIZI.PREST
EGUNERO DELAKO EUSKARAREN ALDIA**

Bizi. Prest.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Halaxe datorkigu euskara bere aurtengo Nazioarteko Egunean. Eta halaxe doa etorkizunerantz. Mingainetan, pantailetan, uhinetan bizi-bizi. Zernahitarako prest.

Etxean bizi-bizi, kalean bezala; bizi-bizi eskolako jolastokian, ikasgelan bezala, lantokian bizi-bizi, lagunarteko solasaldietan bezala; bizi-bizi osagilearenean, saltokian bezala; zuzeneko harremanetan bizi-bizi, birtualetan bezala; bizi-bizi kirolean, liburuetan edo zineman bezala.

Prest gaudelako gu, euskal herritar gehien-gehienok, hori horrela izan dadin. Prest gaudelako euskarari gure hitzen hegoak eskaintzeko, ahotik belarrira, bihotzetik bihotzera, burutik burura hegaldada dadin, samur bezain indartsu. Dakiguna dakigula, mintzatzen ez dena baita euskara eskas bakararra.

Prest gaude, eta gogotsu, euskarak gure ahoan bizi-bizi dantza egin dezan. Gogotsu gaude, eta prest, gure belarrietan atseginez onartzeko euskararen soinua. Dakiguna dakigula, entzuten ez dena baita euskara kaskar bakararra.

Prest gaudelako, eta ezin gogotsuago, euskaraz ere gero eta gehiago bizitzeko. Ingurune guztietan. Eginkizun orotan. Natural-natural. Bizi-bizi.

Euskal hiztunok horretarako egin behar dugun urratsa ez da txikia, ez erraza. Borondate aktiboa eskatzen digu. Erosokeriari izkin egitea eskatzen digu. Sakon errotutako ohiturak aldatzea eskatzen digu. Kontzientzia ahalegin sendoa eskatzen digu. Euskaraz ere herritar izateko aukera egitea eskatzen digu.

Eta eskatzen digu, batez ere, euskaldun izatetik euskaldun bizitzera doan tartea gainditzeko jokaera aktiboa. Eta etengabea.

Euskararen erabileran egin beharreko urrats erabakigarri hau zinez da gizarteraldaketa zabal sakona, neurri historikoa duena, gure gizartearen bilakabidean mugarri izango dena. Eta, neurri horretako aldaketa guztien antzera, adostasuna du elikagai nagusi, prestasun eta prestutasunarekin batera.

Euskararengizartea. Gizartearen euskara

Adostasuna eta batasuna dira, beraz, bidea, euskarak batura behar duelako, ez kenketa; biderketa behar du, ez zatiketa.

Herri aginteak, gizarteak bere dinamika propiotik sorturiko erakundeak, herritar guztiok eta gutariko bakoitza: den-denok gara, aldi berean, euskararen erabilera eraginkortasunez areagotzeak ezinbestekoa duen adostasun zibil



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

zabalaren osagai eta eragile, aldi berean garen bezala haren onuradun eta bultzatzaile, bideratzaile eta babesle.

Baina aktibotasuna, praktikotasuna, da adostasun horren osagarri nahitaezkoa. Aski ez delako, honezkero, aldarrikapen hutsen linboan galtzen diren asmo arranditsuak plazaratzea. Atzean utzi behar dugulako beste inork euskararen alde egin lezakeenaren zain egotea. Lorgarria delako, erabat, euskararen erabilera hazkunde iraunkorraren bidean jartzea, baldin eta herritar bakoitzak euskara ezpainetara eramateko bere erabaki pertsonala gauzatzen badu, hori eta ez besterik delako, azken finean, gizartearen helburu kolektiboa: aukera pertsonal ugariaren batura.

Eta egin egingo dugu.

Munduari euskaraz ere helduz, euskararentzat belarria zein gogoa prest izanez, euskara ahoz zein idatziz bizi-bizi eskainiz. Euskarak eguneroko bizitza aberastu dezan; eguneroko bizitzak euskara bete dezan.

Elkarrekin.

Elkarrenganako errespetu osoz, elkarrengandik adorea jasoz.

Elkarri euskara eskainiz.

Euskara bizi-indarrez sendoagotuz.

Bizi. Prest.

Egunero delako euskararen aldia.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, 2018ko euskararen nazioarteko egunerako adierazpena bere osotasunean onesten du.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.